Alcalde - Alkatea

D. Miguel de los Toyos Nazabal jauna.

Tenientes de Alcalde - Alkate Ordeak

D. Alberto Albistegui Zamacola jauna.

D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna.

Dña. Ana Telleria Echeverria andrea.

D. Arcadio Benitez Dávila jauna.

D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna.

Concejales - Zinegotziak

Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu andrea.

Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea.

Dña. Maria Isabel Larrauri Arriaga andrea.

D. Eneko Andueza Lorenzo jauna.

Dña. Eva Juez Garmendia andrea.

D. Jaime López de Guereñu Urisabel jauna.

Dña. Maria Mercedes Garate Larrañaga andrea.

D. Josu Mendicute Rodríguez jauna.

Dña. Maria Elena Ibañez Anuncibay andrea.

Dña. Igone Lamarain Cobo andrea.

D. Josu Cristobal Churruca jauna.

Dña. Leire Abanzabalegui Aranguren andrea.

D. Gorka Errasti Bernedo jauna.

Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea.

D. Itoitz García-Antón Lorenzo jauna.

Secretaria General - Idazkari Orokorra

Dña. Arantzazu Echániz Petralanda andrea.

Eibarko hirian, bi mila eta hamabosteko irailaren hogeita seian, arratsaldeko zazpiak eta laurdenetan, Udaletxeko Bilera Aretoan, Udalbatza bildu zen Imesaren Batzar Nagusiaren aparteko bilkuran, goian aipaturiko jaun-andereek osatuta.

En la Ciudad de Eibar, a veintiocho de de septiembre de dos mil quince y siendo las diecinueve horas quince minutos, se reunió el Pleno Municipal, en sesión extraordinaria de la Junta General de Imesa, en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, formado por los/as señores/as anteriormente mencionados/as.

Presidente jaunak bilerari hasiera eman dio eta eguneko aztergaiaren atal bakarra irakurri da.

El Sr. Presidente declara abierta la sesión y se procede a la lectura del único punto del Orden del Día.

IMESA SAU.REN ADMINISTRAZIO KONTSEILUA BERRIZTEKO PROPOSAMENA.

PROPUESTA DE RENOVACIÓN DEL CONSEJO DE ADMINISTRACIÓN DE IMESA, S.A.U.

Idazkariak Presidentziaren proposamen hau irakurri du:

La Secretaria da lectura a la siguiente propuesta de la Presidencia:

"IMESA SAU Udal Inmobiliaren Administrazio Kontseiluko kideen karguen iraupena datorren irailaren 30ean amaitzen denez, eta Udal Talde politikoek kargu horietarako eman dituzten izenekin bat etorrita,

"Expirando el próximo día 30 de septiembre la vigencia de los cargos de los componentes del Consejo de Administración de la Inmobiliaria Municipal IMESA, S.A.U y de conformidad con los nombres propuestos por los diferentes Grupos Municipales,

Elkartearen Batzar Nagusiari, bertako Presidente legez, PROPOSAMEN HAU EGITEN DIOT:

PROPONGO a la Junta General de la Sociedad, como Presidente de la misma, lo siguiente:

Datorren irailaren 30etik aurrerako ondorioekin, lau urterako, ondoren aipatuko diren kontseilari berri hauek izendatzea:

- Miguel de los Toyos Nazabal

- Arcadio Benítez Dávila

- Alberto Albistegui Zamacola

- Ana Telleria Etxeberria

- Enrique Artamendi Benito

- Josu Mendicute Rodríguez

- Javier Zorrakin Berrizbeitia

- Igone Lamarain Cobo

- Gorka Errasti Bernedo

- Itoitz García-Antón Lorenzo

SE NOMBRE con efectos a partir del próximo 30 de septiembre y por el plazo de cuatro años, a los siguientes nuevos Consejeros:

- Miguel de los Toyos Nazabal

- Arcadio Benítez Dávila

- Alberto Albistegui Zamacola

- Ana Telleria Etxeberria

- Enrique Artamendi Benito

- Josu Mendicute Rodríguez

- Javier Zorrakin Berrizbeitia

- Igone Lamarain Cobo

- Gorka Errasti Bernedo

- D. Itoitz García-Antón Lorenzo

Ondoren, Idazkariak, EAJ-PNV Taldeko bozeramaileak aurkeztu duen proposamena irakurri du.

Da lectura asímismo a la propuesta presentada por el portavoz del Grupo EAJ-PNV:

IMESA SAU.REN ADMINISTRAZIO KONTSEILUA BERRIZTEKO PROPOSAMENA.

"IMESA SAU Udal Inmobiliaren Administrazio Kontseiluko kideen karguen iraupena datorren irailaren 30ean amaitzen denez eta Udal Talde politikoek kargu horiek betetzeko emandako izenekin bat etorrita,

Elkartearen Batzar Nagusiari, bertako kide legez, PROPOSAMEN HAU EGITEN DIOT:

Datorren irailaren 30etik aurrerako ondorioekin, lau urterako, ondoren aipatuko diren kontseilari berri hauek izendatzea:

- Miguel de los Toyos Nazabal
- Arcadio Benítez Dávila
- Alberto Albistegui Zamacola
- Ana Telleria Etxeberria
- Josu Mendicute Rodríguez

PROPUESTA DE RENOVACIÓN DEL CONSEJO DE ADMINISTRACIÓN DE IMESA, S.A.U.

"Expirando el próximo día 30 de septiembre la vigencia de los cargos de los componentes del Consejo de Administración de la Inmobiliaria Municipal IMESA, S.A.U y de conformidad con los nombres propuestos por los diferentes Grupos Municipales,

PROPONGO a la Junta General de la Sociedad, como miembro de la misma, lo siguiente:

SE NOMBRE con efectos a partir del próximo 30 de septiembre y por el plazo de cuatro años, a los siguientes nuevos Consejeros:

- Miguel de los Toyos Nazabal
- Arcadio Benítez Dávila
- Alberto Albistegui Zamacola,
- Ana Telleria Etxeberria
- Josu Mendicute Rodríguez

- Javier Zorrakin Berrizbeitia

- Igone Lamarain Cobo

- Gorka Errasti Bernedo

- Itoitz García-Antón Lorenzo

Aurrenik Mendicute jaunak hartu du hitza. Esaten du, joan zen uztailean izandako udal osoko bilkura batean, izaera aldetik batetik bestera alde handia zuten kontu-sail bi —hau da, gizarte larrialdietarako laguntzak eta publizitate-inbertsio bat— kreditu-aldaketa bakar batean batera bildu eta bozkatzearen egokitasunez edo egokitasun ezaz eztabaidatu zen bilkura hartan, berak, alkateari, hauxe ziotsala: ez zitzala nahastu txurra eta merino ardiak, batzuk artile ona ematekoak direlako eta besteak esne ona; eta udal batzaren deia jaso duenean, Presidenteak Imesako Kontseilua eratzeko egin duen proposamenaren harira, orduan esan zituen berba haiek halabeharrez etorri zaizkiola gogora.

Mendicute jaunak jarraitu du esaten, umetan, txikia zenean, osaba batek "*la madre del cordero* (koxka non zegoen,

- Javier Zorrakin Berrizbeitia

- Igone Lamarain Cobo

- Gorka Errasti Bernedo

- D. Itoitz García-Antón Lorenzo

Interviene en primer lugar el señor Mendicute, quien afirma que el pasado mes de julio, en un pleno municipal, en el que se discutía sobre la idoneidad o no de votar en una única modificación de crédito dos partidas de carácter tan diferentes como son las ayudas de emergencia social y una inversión publicitaria, le decía al Alcalde que no mezclara churras y merinas, porque unas dan buena lana y otras dan buena leche; y que cuando ha recibido la convocatoria de pleno le ha sido inevitable volver a recordar aquellas palabras, al hilo de la propuesta del Presidente para componer el Consejo de Imesa.

Continúa afirmando que cuando era un niño, un tío le solía preguntar si sabía lo que era "la madre del cordero", y que él,

alegia)" zer zen galdetzen ziola eta, berak erantzuna lehendik prestatuta zuenez, "tinogometría" erantzuten ziola. Hiru urte zituen eta nahiko grazia egiten zuen ume batek horrela erantzuteak, baina oraindik grazia gehiago zuen berak ezin zuelako 'erre'rik ahoskatu; urteekin 'errea'ren kontu hori bestela bezala egiten ikasi badu ere, oraindik ez du hori ahoskatzen ikasi, matematiketan ostera bai, hor zertxobait gehiago ikasi beharra izan duela.

Mendicute jaunak dio ez dela bere asmoa gaur eta hemen tangenteei eta kosinuei buruzko apunteak errepasatzen ibiltzea, baina bai Udal honek bere burua nola antolatzen duten esatea, eta horretarako balekoa dela matematikarik oinarrizkoena : "bat, bi, hiru,  lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bederatzi, hamar, eta hamaika."

Gaineratzen du edozein umek dakiela hamaika hamar baino gehiago dela, eta gaur hemen bildutako guztiek ere badakitela hori; eta horregatik bere Taldeari ez zaiola erraza egiten Presidentearen proposamena ulertzea, ordezkaritzaren erdia baino gehiago eskuratu nahi baitu —hau da, % 50a gehi presidentzia— eta horrek edozein modutan jarduteko aukera ematen dio, beste inorekin ezer adosteko premiarik izateke.

que ya se había ensayado la respuesta, le contestaba que "la tinogometría". Tenia tres años, prosigue, y hacía bastante gracia que un niño contestara aquello, y era más gracioso todavía al no ser capaz de pronunciar la "r", que aunque con los años ha aprendido a disimular un poco, no la ha aprendido; y sin embargo, de matemáticas ha tenido que aprender algo.

No es su intención repasar hoy los apuntes sobre tangentes y cosenos, prosigue, pero sí hablar de cómo se organizan en el seno de este Ayuntamiento y para ello sirve la matemática más elemental: "*bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bederatzi, hamar, eta hamaika*."

Añade que cualquier niño ya sabe que once es más que diez, y que también lo saben los reunidos hoy aquí; y que es por ello por lo que no le es fácil a su Grupo comprender la propuesta del Presidente, quien quiere obtener la mitad de la representación, el 50% más la presidencia, y ello sirve para actuar como quiere, sin necesidad de tener que consensuar con nadie.

Jarraitu du esaten Alkate jaunari maiatzeko hauteskundeetako emaitzak gogorarazi behar zaizkiola, hark botoen % 42a eta hamar zinegotzi lortu baitzituen, eta oposizioak ostera hamaika zinegotzi. Beraz, dio, beraiek logikoa ikusten dute oposizioak ordezkari bat gehiago izatea, eta horrexegatik aurkeztu dute beste proposamen hau non PSEren ordezkaritza ere aitortzen den, baina baita oposizioaren gainerako guztiena ere.

Continúa afirmando que hay que recordar al señor Alcalde los resultados de las elecciones de mayo, en las que obtuvo el 42% de los votos y diez concejales, y la oposición obtuvo once concejales; por lo que consideran lógico que la oposición tenga un representante más, y por lo que han presentado una propuesta alternativa con la que reconocen la representación del PSE, pero también la del resto de la oposición.

Bere Taldearen proposamena ez da ordezkaritza hori aparte uztekoa, dio, Administrazio Kontseiluan argi eta proportzionalki Batzar honek duen ordezkaritza islatzekoa bazik.

Gaineratzen du proportzionaltasuna eskatzen dutela; horrexegatik eskatzen diotela gainerako Taldeei beren proposamenaren alde egitea.

La propuesta de su Grupo no es para dejarla apartada, prosigue; sino para que se refleje de forma clara y proporcional en el Consejo de Administración la representación en esta Junta.

Añade que solicitan la proporcionalidad y que por ello, solicitan al resto de grupos que apoyen su propuesta.

Amaitzeko esan du hamaika hamar baino gehiago dela; hemen dauden batzuk seme-alabak dauzkatela, eta gaur gauean, beren seme-alabei hamar hamaika baino gehiago den galdetzea eskatuko liekela; eta hamarrek beste hamaika horiek baino botere gehiago dutela uste dutenek azal dezatela zergatik, eta berari ere eman diezaiotela

Finaliza insistiendo en que once es más que diez, que algunos de los presentes tienen hijos e hijas y que les pediría que esta noche les pregunten si es más diez que once; y que aquellos que consideren que diez tiene más poder que once, explicaran el porqué, y la explicación se la transmitieran a él, porque igual así es capaz de entender.

horren azalpena, agian, horrela, bera ere ulertzeko gauza izango delako.

Ondoren Lamarain andreak hartu du hitza. Esaten du bere Taldeak urteak daramatzala Imesa deuseztatzea eskatzen; gauza jakinekoa dela dirua galtzen duela eta, gainera, diru publikoa. Bere ustez Udalak aspaldi hartu behar zuen Imesa deuseztatzeko erabakia, zuloa handitzen doalako.

Interviene a continuación la señora Lamarain quien afirma que su Grupo lleva años solicitando que se disuelva Imesa, que ya se sabe que pierde dinero, siendo además dinero público, y que a su entender el Ayuntamiento hace tiempo que debería de haber adoptado el acuerdo de disolución, pues el agujero sigue creciendo.

Lamarain andreak gaineratu du Administrazio Kontseilua proportzionala ez izan arren, bere iritziz lehen bait lehen eratu behar dela sozietatearen likidazioa zuzentzeko, eta gainerakoek likidazio horren jarraipena egin.

Añade que aunque el Consejo de Administración no sea proporcional, consideran que tiene que formarse inmediatamente para dirigir la liquidación de la sociedad, y el resto hacer un seguimiento de esta liquidación.

Alkate jaunak hartu du hitza eta esaten du Mendicute jaunari eskertzen diola abelazkuntzaz eta matematikaz eman duen lezioa, baina matematikak, ñabardurak egiten dizkien araudiak daudenean, zailak izaten direla aplikatzen, eta oraingo kasu honetan ezin dela matematika zehatzik aplikatu, tartean, proportzionaltasuna modu matematikoan ezin aplikatu izana dakarten baldintza batzuk daudelako.

Interviene el señor Alcalde quien dice que agradece al señor Mendicute la lección de ganadería y de matemáticas, pero que las matemáticas son difícil de aplicar cuando hay normativa que las matiza, y que en este caso, no son aplicables las matemáticas exactas, ya que hay una serie de condicionantes que hace que no se aplique la proporcionalidad de una manera matemática.

Gaineratzen du EAJ-PNV Taldeak egin duen proposamena zilegi dela eta horrelakotzat bozkatuko dela, eta aurrera ateratzen bada errespetatuko da. Hala ere, dio, une kontuzkoa da Imesarentzat, eta Kontseiluak hartuko duen erabaki bakarra —tramiteko gauzaren bat kenduta— sozietatea deuseztatzeko erabakia izango da.

Añade que la propuesta que ha hecho el grupo PNV es legítima y que como tal se votará, y si sale se respetará; pero que es éste un momento delicado de Imesa y que el Consejo la única decisión que adoptará, salvo alguna de trámite, es la disolución de la sociedad.

Alkateak jarraitu du esaten sozietatea deuseztatzeko prozesuari hasiera ematea dela bermatu behar dena, eta lehen ere esan zuenez, horretan udaletik kanpoko eragile espezializatuek parte hartzea dela bere asmoa; baita Presidenteak eta alderdi politiko bakoitzeko kide banak ere. Horretan ere, dio, matematikak ezingo dira aplikatu.

Prosigue afirmando que lo que hay que garantizar es que se inicie el proceso de disolución, y que ya advirtió que su deseo es que participaran agentes externos especializados, así como el Presidente y un miembro de cada partido, con lo que tampoco se van a poder aplicar las matemáticas.

Amaitzeko esan du berari, txikitan, errespetua eta hezibidea ere erakutsi ziotela, eta besteen etxean ez sartzeko esaten ziotela. Alkateak dio alderdi sozialistako kide bat kentzen duen proposamen bat egiten bada, gutxienez galdetu beharko dela zein den kendu nahi den kide hori.

Finaliza afirmando que a él de pequeño también le enseñaron educación y respeto, y le dijeron que no se metiera en la casa de los demás, y dice que si se hace una propuesta en la que se elimina a un miembro del partido socialista, ¡qué menos que preguntar a cuál!

Berriro Mendicute jaunak hartu du hitza. Esaten du Partidu Sozialistaren bosgarren ordezkaria kentzeko erabili den irizpidea, planteatu den zerrendan azkena zegoena

Interviene de nuevo el señor Mendicute quien afirma que el criterio seguido para quitar al quinto representante del Partido Socialista ha sido eliminar al último del

kentzea izan dela.

Gaineratzen du gauza biak direla zilegi: bere Taldeak proposamen bat egitea eta PSEk beste bat egitea; bigarren horretan ere ez da inon jasotzen EAJ Taldeak hori onartzeko borondatea duenik.

Mendicute jaunak jarraitu du eta esan du eskertuko liokeela Bilduko bozeramaileari bere jokabidea zein den argituko balio, harrituta dagoelako gai honi, sozietatea deuseztatzeari, hain garrantzia gutxi ematen diola ikustean.

Esaten du Bilduk baduela beste udal batzuk nola antolatzen diren jakiteko adibiderik; esate baterako, Portugaleten, han alderdi sozialista izan baita duen ordezkaritzari uko gehien egin dion alderdia, Udal hura alderdi horrek gobernatzen baitu; edo Barakaldon, boto haztatua erabilita funtzionatzen baitute. Edozein kasutan ere, dio, alderdi sozialistak leku horietan Eibarren erakusten ez duen beste borondate bat du.

Amaitzeko, Mendicute jaunak baieztatu du "*¿qué es la madre del cordero?* (non dago koxka?)?" galderari tiraka, berari zera begitantzen zaiola: alderdi sozialistari irenstea kostatzen ari zaiola maiatzeko hauteskundeen ostean gehiengo osoa galdu izana, hiru agintalditan izan baitu gehiengo oso hori, bakarrean arituta edo

orden planteado.

Añade que es tan justo que su Grupo haya hecho una propuesta, como que el PSE haya hecho otra en la que tampoco hay constancia que sea la voluntad de su Grupo aprobarla.

Prosigue diciendo que le gustaría que la portavoz de Bildu aclarara cuál va a ser su posición porque le sorprende que le dé tan poco valor al tema, porque la Sociedad vaya a disolverse.

Tiene Bildu ejemplo en otros ayuntamientos de cómo se organizan, continúa, y por ejemplo en Portugalete el partido que más ha renunciado a su representatividad ha sido el partido Socialista, que es el que gobierna, o en Barakaldo donde se funciona con voto ponderado; y en todo caso hay una voluntad del partido Socialista que no se dá en Eibar.

Finaliza afirmando que a la pregunta de "¿qué es la madre del cordero?" tienen la impresión de que lo que al partido Socialista le está costando digerir es que después de las elecciones de mayo ha perdido la mayoría absoluta con la que ha contado durante tres legislaturas completas, bien en solitario, bien con el

alderdi Popularraren ezbairik gabeko laguntzarekin, eta hortxe bai dagoela benetako koxka edo gakoa.

apoyo incondicional del partido popular, y que eso sí que es “la madre del cordero”.

Alkate jaunak dio, errespetu osoz, Mendicute jauna ez dela inor, horrelakorik aurretik galdetzeke, alderdi Sozialistako ordezkari bat kentzeko irizpideak ezartzeko. Alkateak dio alderdi Sozialistak ez zuela gehiengo osorik izan aurreko agintaldian, eta ez zuela inorekin akordiorik izan.

Afirma el señor Alcalde que con todos sus respetos el señor Mendicute no es nadie para aplicar criterios para quitar a un representante del partido Socialista sin preguntar previamente, y dice que el partido Socialista en la pasada legislatura no tuvo mayoría absoluta, ni tuvo ningún acuerdo con nadie.

García Antón jaunak argitu du EAJ-PNVren proposamenaren alde egingo duela, proportzionala delako eta bere boto-emaileei ezin dielako esan botere apur bati uko egingo diola.

El señor García-Anton aclara que va a apoyar la propuesta del PNV porque es proporcional y no puede decir a sus votantes que renuncia a un poquito de poder.

Alkate jaunak dio araudi bat dagoela, eta araudi horrek talde guztiak ordezkatuta egotera behartzen duela, baina ez proportzionalki.

Indica el señor Alcalde que hay una normativa que obliga a que todos los grupos estén representados, pero no proporcionalmente.

Lamarain andreak hitza hartu du eta esaten du beraiek urteak daramatzatela Imesaren likidazioa eskatzen horrek sortzen duen zuloagatik, milioi bat eurotik

La señora Lamarain interviene para decir que llevan años solicitando la liquidación de Imesa por el agujero que genera, que asciende a más de un millón de euros, y

gorakoa, eta ikusiko dela hori betetzen den. Hala ere, dio, Alkate jaunak Bozeramaileen Batzarrean esan zuen Administrazio Kontseilua eratuko zela likidazioa zuzenduko duen taldea eratzeko, eta bere Taldeak likidazioaren kontu hori ahalik eta azkarren bideratzea nahi duela.

Lamarain andreak gaineratu du EAJ-PNVek proposamen bat egin duela baina bere Taldeari hark ez diola galdetu proposamen horrekin bat egin nahi duen. Hortaz, bere Taldea abstenitu egingo dela haren proposamenaren bozketan. Amaitzeko esan du bere Taldeak likidazioarena dela ahalik eta azkarren bideratu nahi duena, defizita ez handitzearren.

que ya se verá si se cumple; pero que en la Junta de Portavoces, el señor Alcalde dijo que se formaría el Consejo de Administración para constituir un grupo que dirija la liquidación, y que lo que su Grupo desea es encauzar este tema rápidamente.

Añade que el PNV ha hecho una propuesta, pero que tampoco ha preguntado a su Grupo si desea estar en su propuesta, y que por tanto se van a abstener reiterando que el deseo de su Grupo es encauzar la liquidación cuanto antes, para que no se agrande el déficit.

Berriro Mendicute jaunak hartu du hitza, eta Alkate eta Batzar honetako Presidente jaunari esaten dio ez badu zuzentzat ikusten bosgarren hori kentzeko erabili duten irizpidea –ez dakiela Udal Idazkariak zerbait esan dezakeen— beraiek prest daudela proposamena aldatu eta beste izen bat kentzera.

Gaineratu du benetan harridura desatsegina jaso duela Lamarain andreari entzundakoarekin, gainera –dio- beraien proposamena egin aurretik Bildukoekin

Interviene de nuevo el señor Mendicute para decir al señor Alcalde y Presidente de la Junta, que si no considera correcto su criterio de eliminar al quinto designado, no sabe lo que diría la Secretaria, pero que ellos están dispuestos a cambiar su propuesta y eliminar otro nombre.

Añade que le ha causado una sorpresa desagradable lo oído a la señora Lamarain, teniendo en cuenta que antes de formular su propuesta consultaron

egon zirela, izan ere, bere asmoa proposamen bateratu bat aurkeztea baitzen, baina edozein kasutan ere, Bildukoekin egon eta Bilduk ordezkari bi izango zituela adierazi zitzaien.
Ez daki bera beste planeta batean bizi den ala ez, dio Mendicute jaunak, baina joan zen barikuan Bilduk duen bulegora joan ziren, eta orain harrituta geratu da ez zitzaiela kontsultatu entzutean. Mendicute jaunak dio onartzen duen alderdi Sozialistaren kritika, baina inondik inora ere ez Bildurena.
Gaineratzen du Bildukoei duten jokabidearen inguruko hausnarketa egitea eskatuko liekela, berak uler dezakeelako ordezkari batzuk batera aurkezte horrekin bat ez etortzea, baina ez du ulertzen alderdi Jeltzaleari kalte egitearena, une honetan, alderdi Jeltzalea eta baita Irabazi ere, biak ari direlako Bilduren maniobrabilitate politikoa defendatzen, eta ez duela ulertzen zein den proposamen hau ez onartzeko arrazoibidea eta alderdi Sozialistari Imesaren botere osoa edukitzen uztekoa.

Lamarain andreak dio EAJ-PNVek egin zuena bere Taldearen iritzia eskatzea izan zela, ordezkaritzan beste proportzionaltasun bat izango zuen

con Bildu, y que su deseo era el presentar una propuesta común, pero que en todo caso contactaron con ellos y les dijeron que Bildu tendría dos representantes.
No sabe si vive en otro planeta, continúa, pero el pasado viernes fueron al despacho de Bildu, y ahora le sorprende oír que no se les haya consultado; y acepta la crítica del partido Socialista pero en ningún caso la de Bildu.

Añade que les pediría que reflexionasen sobre su actitud porque puede entender que no se comparta el presentar conjuntamente unos representantes, pero no el hacer daño al partido Nacionalista, pues en estos momentos el partido Nacionalista e Irabazi también están defendiendo que la maniobrabilidad política de Bildu se respete y que no entiende la razón por la que no se apoya esta propuesta y se deja que el partido Socialista tenga el poder absoluto en Imesa.

Afirma la señora Lamarain que lo que hizo el PNV fue recabar la opinión de su Grupo sobre la presentación de otra propuesta con otra proporcionalidad, que

proposamen bat aurkezteko; Udal Idazkariarekin hitz egingo zutela esan zietela beraiei, eta harrez geroztik ez dutela izan PNVaren berririk.

les dijeron que hablarían con la Secretaria, y que no han tenido más noticias por parte del PNV.

Lehen esan duen bezala, dio Lamarain andreak, gai hau ahalik eta azkarren, berehala bideratu behar da; eta gainera kontuan hartu behar da Batzar Nagusia hauxe berau dela, hogeita bat zinegotzi dituen Batzarra; hemen hartzen dira erabaki garrantzitsuenak, eta organo bakoitzari duen balioa eman behar zaio.

Tal como ha dicho, insiste, este tema hay que encauzarlo rápidamente y además hay que tener en cuenta que la Junta General es ésta con veintiún concejales, que aquí se adoptan los acuerdos más importantes, y que a cada órgano hay que darle su valor.

Alkate jaunak hitza hartu du eta esan du gaur gauean bere semeari galdetzen badio,  ez hamar hamaika baino gehiago den, baizik eta hamar, bost eta bost eta bat baino gehiago den, ziur aski erantzungo dio batuketa nola egin horren arabera dela.

Interviene el señor Alcalde para decir que si esta noche le pregunta a su hijo no si diez es más que once; sino que si es más diez que cinco, cinco, y uno; seguramente le contestará que depende de cómo se sume.

Azkenik, Presidente jaunak egindako proposamena bozketara eraman da eta emaitza honekin onartu da:

Finalmente se somete a votación la propuesta efectuada por el señor Presidente, y se aprueba con el siguiente resultado:

Baiezko botoak: Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria

Votos afirmativos: Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria

Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga y Andueza Lorenzo (PSE-EE).

Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga y Andueza Lorenzo (PSE-EE).

Ezezko botoak: Juez Garmendia, López de Guereñu urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), García-Antón Lorenzo (IRABAZI).

Votos negativos: Juez Garmendia, López de Guereñu urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), García-Antón Lorenzo (IRABAZI).

Abstentzioak: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU).

Abstenciones: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU).

Alkate jaunak dio proposamen hau onartu denez ez dela bidezkoa beste proposamena bozketara eramatea.

Indica el señor Alcalde que al haberse aprobado esta propuesta, no procede votar la alternativa.

Ondoren, goian aipatutakoek, Aretoan bertan egon eta Kontseilari izendatu dituztenak, hauxe adierazi dute: kargua onartzen dutela eta ez dutela kargu horretarako bateraezintasunik edo ez gaitasunik ondoko lege hauen arabera: Hauteskunde-araubide Orokorraren Lege Organikoaren 6. artikulua eta 178. artikulua; Gobernuko eta Goi Karguen interes gatazken inguruko 5/2006 Legearen 3. artikulua; goi karguei buruzko Eusko Jaurlaritzaren 7/1991 Legeko 29. artikulua eta Kapitaleko Sozietateei

Con posterioridad, los arriba mencionados presentes en la Sala, y nombrados Consejeros, manifiestan aceptar el cargo y no estar incursos en causa de incompatibilidad o incapacidad para el mismo, con arreglo a los artículos 6 y 178 de la Ley Orgánica del Régimen Electoral General, al artículo 3 la Ley 5/2006 sobre conflictos de intereses de miembros del Gobierno y Altos Cargos, al artículo 29 de la Ley del Gobierno Vasco 7/1991 de Altos Cargos, y al artículo 213 del Real Decreto Legislativo

buruzko testu bategina onartzen duen 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren 213. artikulua. Artikulu horiek guztiak Idazkariak irakurri ditu.

1/2010 por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Sociedades de Capital, que son leídos por la Secretaria.

Eta gainerantzeko gairik ez dagoenez, eta arratsaldeko zortziak hogeitabost gutxi izanik, Presidente jaunak bilerari amaiera eman dio, guzti honetaz, nik, Idazkari Orokor naizen honek, fede ematen dudalarik.

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las diecinueve horas treinta y cinco minutos, el Sr. Presidente levanta la Sesión, de todo lo cual yo, la Secretaria General, doy fe.